

Hezkuntza sistemaren ahots bateratua



DIANA FRANCO EGUREN

Boterea eskuratzeko modu asko dago; denak ez dira politak. Bada boterea eta horrek berarekin darraren erantzukizuna banatu nahi duenik, agintea bilatzen duenik. Beste batzuek errespetu larri diote eta pauso bakoitza hainbeste neurtuta ez dira gai erabakirik hartzeko. Boterea zer den inoiz ezagutu ez duenik bada, eta ahots xumearekin zerbait ondo ez dagoela ulertzen duenean seinatzen duena, bizitza hobetzeko bidean. Batzuetan, ohartu garenako ahots xume hori ekintza antolatuta bilakatu da eta arazoaren aurrean boteretzen joan da.

Badira zenbait eremu non pertsona xumeok arreta handia jartzen dugun, gure bizitzetan eragina erraldoia baita: hezkuntza da horietako bat. Euskal Herrian dugun hezkuntza sistema oso anitza da, "mundu" ezberdinei arreta egiteko sortua. Gobernatzen gaituzten botereek guztiontzat on den ezer egiteko gai ez dira izan oraindik. Errealitate horretan, eredu guztiak "txarrik" suertatu dira eraldaketa digitalen aurrean; hezkuntza sistema arduratuta dago. Hezkuntza sistemako parte garen ikasle, familia, irakasle, ikertzaile, kudeatzaileak... pixkanaka-pixkanaka arazoa seinatzen hasi gara, eta gure artean partekatzen. Azken urteetan hainbat mugimendu sortu dira: hala nola hezkuntza.librezale.eus eta altxaburua.eus. Bietan, hezkuntza sistema osatzen duten eragile guztietako adierazleak aurkitzen dira, eredu publikotik zein hitzartutik. Guraso elkarten bileretan, mezularitza aplikazio ezberdinen kanaletan, medioetan... oihartzuna aurkitu du inoiz ez bezalako ahots bateratuak. Ikastetxeak, haurrak eta gazteak dituzten familia askoren bizitzan antolaketaren erdigune diren heinean, eskaeren jo-muga izan dira. Adibidez, ikastetxeetan mugikorrek debekatze-ko eskaera. Beste batzuk konplexuagoak dira: hezkuntzaren digitalizazio ereduaren inguruan hausnarketa sakona egitea, hezkuntza sistema osatzen dugunon datuak merkatugaitzat hartuko ez dituen eredu baten bidean. Denak dira garrantzitsuak. ●

Muga-zergak

MIKEL ARAMENDI

Air Force One hegazkinean Super Bowl-erako bidaia aprobeztatu zuen Donald Trumpek, ezartzearen dituen muga-zergen berri emateko. Eszenografiaren aldetik, bikain. Etxerako mezua da "lasai baino lasaiago nago ni; begira nora goazen... Estatubatuarrak ere lasai egon daitezke gaur, eta bihurtzeko aurrera ere".

Ohartu da -edo esan diote- aurreko astean aditzera ematen zuen "oinaze pittin" horren mezua ez zela merkataritza-gerrari ekiteko komenigarriena, eta gutxi gorabehera, 2017ko hartara itzuli da: merkataritza-gerrak oso onak dira, eta aise irabazten dira. Baina halakorik esan gabe, badaezpada ere. Ez baitu hori adierazten historiak.

Berez, lasaitasuna antzezteko ahalgin horrek badu zerikusia, Trumpek berak ez bada, haren ingurukoak behintzat agintean daramatzaten aste hauetan muga-zergen egitasmoen inguruan sumatzen hasi diren oinazemalarekin. Izan ere, oinazea da merkataritza-gerrak bestelako edozein gerrarekin erkide duena; ez oinaze fisikoa, bai ekonomikoa... Hortik erator daitekeen guztiarekin. Zuzenean odollik ez isurtzeak ez du jolas bihurtzen merkataritza-gerra.

Kanada, Mexiko eta Txinaren aurka iragarritakoek aurkitu duten erantzunak zer pentsaturik eman behar lioke Trumpek Etxe Zuriari. Errepresalien

ataka zabalik geratu da kasu guztietan; eta Txinaren kasuan, egikaritu egin dira, lehen unetik, errepresalia horiek.

Negozio-atal kaltetuak oinazearen beldur dira, jakina, baina gizarte-giroa ez da amore ematearen aldekoa inon. Trumpek izaerak asko "laguntzen" du horretarako. Denbora igaro (eta oinazea nozitu) ahala, aldatzen joango da hori, ziur. Baina faktore estrategikoa da iritzi publikoa.

Gerra guztietan bezala, estrategia behar baita merkataritza-gerran ere, haren esanera jokatzeko. Oraingo lehen borrokatxoek erakusten dute, adibidez, Txinak behintzat doitu-ta daukala erantzunaren estrategia. Erabiliko dituen baliabideak, epeak, mailak eta intentsitateak luzaro hausnartu dituela. Eta herabetasunez mozorrotuta, min egitera doala lehen unetik, sektore edo ekoizpen zehatzak jipoituz. Europar Batasunari halakorik eskatzea ameskeria izango litzateke, noski.

Galdera potoloa da: ba ote du estrategia bat Trump administrazioak? Esate baterako, zein da sutu duen gerra honen helburu zehatza, Trumpek ohikoa duen kalamatrikaz harago? Merkataritza-balantza orekatzea? Estatutatu Batuetan industria indarberritzea? Diru-kutxa publikoa hornitu eta defizitak gutxitzea? Txinari zangoak moztea? Europa izorratzea? ●



ROBERTO SCHMIDT / AFP